

## EDITORIALA

**Erantzuna, eraikitzea**

Egunkaria kendu egin digute, eta bere inguruan lanean ari den hainbat lagun atxilotu, espetxeratu, laidotu eta torturatu dute. Ez da beste jomuga batzuren aitzakiaz estatuko indarrek gure kultura edo hedabideen aurka jo duten lehenengo aldia, eta ziurrenik ez da azkena izango, baina eraso honek bereziki ukitu gaitu, haserre bizia piztu du euskal gizartean.

Agian, hain ezagunak eta estimatuak diren kulturagile eta kazetari batzuk indar polizialaren atzaparretan ikusirik, estatuak euskal kulturaren eta gizartearen aurka darabilen logika ankerra -edozein bitartekok balio du- inoiz baino gordinago agertu delako.

Beraz, erantzun beharra daukagu. Baina ez edonola. Oldez olde datozen erasoak ez dira itsuak, estrategia orokor bati jarraiki egiten dituzte, une zehatza epe laburreko taktikaren arabera bada ere: Prestigetik isuritako galipota eta Iraken aurka datorren erasoa medio Espainiako gobernuaren ospea eta boto-intentzioak gainbehera zetozen estatu mailan, eta Auzitegi Nazionalako epaileen bat beti dago une zailetan zerbitzari leial izateko prest.

Baina diogun moduan, behin eta berriz egindako gehiegikeria horiek estrategia baten arabera egiten dira: estatuaren logika eta sistema ontzat ematen ez duen oro suntsitzea. Geuk ere erasoari buru egitekotan argi izan beharko genuke nora jo nahi dugun, lan munduan, komunikazioan, irakaskuntzan edota kulturagintzan epe luzeko zein helburu ditugun eta zein bitarteko erabiliz gauza ditzakegun.

Martxoaren 13koa izan liteke norabide horretan garamatzan lehen urratsa: Zerbait eraiki nahi dugu; hasteko, euskara eta euskarazko hedabideak aintzat hartzen dituen gizartea. Itxi duten kazeta berritara aterako da, gure bultzadaz hobetuta. Eta 13an agertuko dugun konpromisoan ez dugu atzera egingo: Bai euskarari, Bai Egunkariari.

# 13 de marzo EGUNKARIA AURRERA

José Elorrieta destacaba en la presentación de la jornada de movilización del 13 de marzo, "Bai euskarari, adierazpen askatasunari / Bai Egunkariari", que convocan los sindicatos ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE, ELB, Hiru y Egas, que este el día del sí: "Convocamos una jornada de movilización, pero no desde una perspectiva de pura reacción o respuesta a un abuso del estado, sino en clave positiva; vamos a aportar algo positivo, queremos construir".

Por supuesto, la jornada de movilización también será de protesta, porque "no vamos a pasar por alto todos los abusos y vulneración de derechos cometidos por la Guardia Civil, el poder judicial, ni las falsedades e insultos que se han vertido desde el Gobierno español y algunos de sus corifeos".

El secretario general de ELA explica el sentido de la gran movilización generada por el cierre de Egunkaria y las diez detenciones relacionadas con la operación: "Este pueblo ha decidido hace tiempo que quiere desarrollarse, entre otras cosas, en torno al euskara, y Egunkaria era una de las manifestaciones de esa voluntad; el 13 de marzo servirá para expresar nuestro compromiso".

El Estado español, como tal, y en todas sus vertientes -gobierno, poder judicial, medios de comunicación-, no puede admitir que se asienten y consoliden unas señas de identidad que escapan de su alcance, que el pequeño pero activo mundo euskaldun sea capaz de mantener, entre otras realidades positivas, un periódico plural y de referencia para cada vez más gente.

Por eso, persigue policialmente a Egunkaria, como antes hizo con AEK, Zabaltzen, e implica indirectamente -pero provocando gran daño- a la revista cultural Jakin, el semanario Argia o las ikastolas. Todo lo que esté relacionado con el euskara, sobre todo si tiene éxito, se convierte en blanco potencial para unos poderes obsesionados en asociar, de manera sistemática, lo euskaldun con la violencia.

### LA EXPRESION MAS AUTORITARIA

Elorrieta recordaba que esta no es la primera injusticia cometida contra entidades euskaltzales, "pero esta vez, definitivamente, se han pasado; ha quedado en evidencia la



enorme carencia democrática del estado -la falta de separación de los poderes es evidente-, y hemos visto su expresión más autoritaria y cruel".

El antiterrorismo es el pretexto para esta operación, "pero decir que Egunkaria es un instrumento para fines terroristas entra en la antología del disparate", afirmó el secretario general de ELA.

La mejor respuesta de esta sociedad, destaca Elorrieta, "debe ser reforzar el proyecto de un periódico euskaldun, suscribiéndose y haciendo uso de él y convirtiéndolo en referencia informativa, en fuente de información habitual".

*Martxoaren 13a ez da soilik estatuari erantzuteko izango; mezu eraikitzailea, positiboa ere izango du*

*Aukeraz*



Babesik sendoena

**ARRATSALDEKO 7.30ETAN, BILBOKO LA CASILLAKO PABILOIAN, MIT**

**EL DÍA 13, A LAS 19.30, ACTO EN EL PABELLÓN DE LA CASILLA DE BILBAO**

# DIKTADUREN ESKULIBURUA

**E**gunkariaren zuzendaritza eta administrazio-kontseiluko kideek Guardia Zibilaren esku inkomunikaturik izan diren egunetan jasandako torturak, tratu txarrak eta laidoak salatu dituzte. Izan ere, lege antiterroristak bere baitan atxilotu duten jendearekin zer egiten duen jakiteko ez die poliziei inolako kontrolik ezartzen, eskubideak zulo beltz batean jausten dira epaitegira eramanez aurretik dagoen inkomunikazio epeak irauten duen artean. Honek torturak gertatzeko eta horien zantzuak desagertarazteko aukera ematen du.

Honen aurrean, gaiaren erantzukizuna duen Acebes ministroari mehatxak botatzea beste gauzarik ez zaio otu: torturak izan direnik salatzen duen edonor auziperatu egingo duela esan du, gezurretan ari delakoan; ministroak dioenez, gauza jakina da ETAK atxilotu duten edonor behartzen duela tortura sala dezan, hots, ETaren eskuliburuari jarraitzen diotela tortura salatzen dutenek (ETAren zerikusirik ez dutela ongi dakien arren). Gure ikuspegia, berriz, guztiz kontrakoa da: Acebesek diktaduren eskuliburua erabiltzen duela, arrazoiaren eta bermeen orde zigorra eta mehatxua agintzen duen eskuliburua.

Behingoz, ordea, torturaren testigantza sinesgarria gertatu da, baina ez soilik Euskal Herrian –beste kasu asko ere ezagutu eta salatu izan baitugu, horra duela gutxi ere Unai Romanorekin egin zuten basakeria–, baita gure

mugetatik harago ere (badirudi Maragallek Otamendiri sinetsi izana batzuzentzat argigarria dela).

Hemen aspaldidanik dakigu, Espainiako ministro, kazetari, politikari eta botere guztiak mehatxuka jardun eta bistan dena ukatuagatik ere, torturak badirela, eta euren sasi-zuzenbide estatua agerian geratzen dela.



## BAI EUSKARARI

### ■ BAI euskarari

- Euskara herri honen hizkuntza, gure hizkuntza dugu. Hizkuntza oro legez, altxor bat da, baina munduan diren milaka hizkuntzaren artean euskara da gure ahots berezia. Euskarak, anitza izanik, bat egiten gaitu.
- Euskara zaindu eta babestea dagokigu, gure arbasoengandik jaso dugun ondarea aberastu eta indarberrituta ondorengoei utzi nahi diegulako.

### ■ BAI normalizazioari

- Euskara nonahi erabili eta entzutea nahi dugu, baita hedabideetan, hezkuntza sistema osoan, teknologia berrietan, lan munduan ... Nahi izanez gero, gure hizkuntza gaurko gizarterako tresna egokia izango da.
- Euskararen normalizazioa bete, hots, eguneroko bizimoduan eta oztoporik gabe garatzea, bizikidetzaren normalizazioarako bidean ere lagungarria izango da.

### ■ BAI euskarazko hedabideei

- Euskal Herria txikia da, eta herri txikiek zailtasunak izan ohi dituzte alor askotan, are gehiago egungo globalizazio oldarkorrean. Hedabideak gero eta esku gutxiagotan jausi ahala, gero eta uniformeago bilakatu ahala, hurreko prentsak, euskaraz adierazten den prentsak herri honi nor izaten jarraitzen laguntzen dio.
- Euskarazko hedabideak bultzatzeko eta erabiltzeko borondatea eta konpromisoa adierazi nahi dugu. Gure esku dagoena egingo dugu honelako proiektuak gauza daitezen.

## ESTADO, CADA VEZ MÁS, DE EXCEPCIÓN

**E**l mismo estado que dice defender las libertades y los derechos humanos se los ha cargado una vez más: sus fuerzas policiales han detenido violentamente, en medio de la noche, a personas ejemplares, pacíficas, que llevan una vida normal y pública, tratándoles como criminales peligrosos (llevándoselos esposados, con la cabeza cubierta). Estas personas han sufrido durante los cinco días en que han estado en manos de la Guardia Civil todo tipo de vejaciones, malos tratos y torturas. Ni siquiera el estado de salud de personas como Pello Zubiria, director de la revista Argia que padece una grave enfermedad, a quien tuvieron que hospitalizar en un lamentable estado, impidió esa escandalosa actuación policial.

Las gravísimas vulneraciones de derechos cometidas en las diez personas detenidas no fueron todo: ha habido registros indiscriminados, requisas de materiales, documentación y medios técnicos en Egunkaria, pero también en otras empresas y medios, como Plazagunea, las revistas Argia y Jakin, y la Federación de Ikastolas.

El derecho a la salud y la integridad física, la presunción de inocencia, el derecho a no declarar, la libertad de expresión, el derecho a la información, la división de poderes, el derecho a una defensa jurídica eficaz, la protección de los datos de varias entidades y asociaciones... ¿Queda algún derecho, libertad o principio democrático que no haya sido pisoteado, por el "estado de derecho" que debería garantizarlos?

## Escribo en una lengua extraña

*Escribo en una lengua extraña. Sus verbos, la estructura de sus oraciones de relativo, las palabras con que designan las cosas antiguas –los ríos, las plantas, los pájaros– no tienen hermanas en ningún otro lugar de la Tierra. Casa se dice etxe; abeja erle; muerte heriotz. El sol de los largos inviernos, eguzki o eki; el sol de las suaves y lluviosas primaveras, también eguzki o eki, como es natural; Es una lengua extraña, pero no tanto.*

*Nacida, dicen, en la época de los megalitos sobrevivió, lengua terca, retirándose, ocultándose como un erizo en este lugar que ahora, gracias precisamente a ella, muchos llamamos País Vasco o Euskal Herria. Sin embargo, su aislamiento no fue absoluto: gato es Katu; pipa es pipa; lógica es logika. Como concluiría el príncipe de los detectives, el erizo, querido Watson, salió de su madriguera y visitó muchos lugares, y sobre todo Roma.*

*Lengua de una nación diminuta, lengua de un país que no se ve en el mapa, nunca pisó los países de la Corte ni el mármol de los edificios de gobierno; no produjo, en cuatro siglos, más de un centenar de libros: el primero en 1545; el más importante en 1643; el Nuevo Testamento, calvinista, en 1571; la biblia completa, católica, allá por 1860. El sueño fue largo, la biblioteca breve; Pero en el siglo veinte, el erizo despertó.*

*Texto escrito por Bernardo Atxaga para la Conferencia Internacional de Periodistas "Prime time for tolerance" organizada por ELA y la F.I.P. en Bilbao en 1997.*

## Comunicado de la Federación Internacional de Periodistas (FIP)

# "GOLPE A LA LIBERTAD DE PRENSA"

En un comunicado difundido el 21 de febrero, la Federación Internacional de Periodistas (FIP), asociación que reúne al mayor número de profesionales de la información en el mundo, ha denunciado la clausura de Egunkaria y la detención de 10 personas por orden de la Audiencia Nacional como un "golpe a la libertad de prensa en el País Vasco".

"Cuando se clausura de esta manera el único diario en euskara, esto proyecta una sombra sobre la libertad de expresión en la comunidad de lengua vasca", afirmó Aidan White, secretario general de la FIP, quien añadió que "periodistas de todos los ámbitos de la comunidad están inquietos" por las implicaciones de esta clausura "para el periodismo libre".

En ese sentido, el manifiesto que los ocho sindicatos convocantes del paro el 13 de marzo proclama también que "todos tenemos derecho a difundir y recibir información verdadera y opiniones libremente expresadas, y a elegir nuestras fuentes de información". Y, afirma también, "todo periodista y medio de comunicación tiene derecho a hacer su trabajo y difundir información sin que se vea sometido a la amenaza de cierre, persecución o cualquier otra coacción".



# BAI EGUNKARIARI

## ■ BAI Egunkariari

○ Egunkaria ezean, ahots baten faltan gaude, hitz idatzia kentzen zaigu. Herri honek kalean eta kioskoetan agertu du euskarazko egunkari bat babesteko konpromisoa; guztiok –erakunde, alderdi politiko, eragile sozial ala herritar– geure egin dezagun.

## ■ BAI adierazpen askatasunari, informazio eskubideari eta aniztasunari

○ Guztiok dugu egiazko informazioa eta askatasunez adierazitako iritzia emateko eta jasotzeko eskubidea. Baita norberak informazio-iturria hautatzeko eskubidea ere.

○ Halaber, kazetari eta hedabide guztiei zor zaie itxiera, jazarpen eta beste inolako mehatxurik jaso gabe beren lana egin eta informazioa hedatzeko aukera.

## ■ BAI Egunkariko langileei

○ Egunkariko langileen enplegua eta etorkizun profesionala bermatu beharra dago. Ezin da alferrik galdu hamahiru urteko ibilbidean lan itzelez jasotako proiektua eta euskararen hedapen eta normalizazioaren aldeko lan eskerga.

## ■ BAI atxilotuen askatasunari

○ Gure kulturgintzako hainbat pertsona eredu garri bezain beharrezkoak era zakarrean atxilotu dituzte, batzuk torturatu eta gehienak espetxeratu. Orain arte lan handia eginda-koak badira, aurrerantzean ere hortan jarraitzea nahi dugu. Etxean behar ditugu.

ELA LAB ESK STEE-EILAS EHNE ELB HIRU EGAS

